

AMALGAMA

2017KO TXOSTENA

AMALGAMA PLATAFORMA BIRTUALA

MATIZ ELKARTEA

2017KO ABENDUA

ZER DA AMALGAMA?

AMALGAMA plataforma Matiz elkarteak diseinatutako kulturarteko tresna birtuala da honako proiektuaren bitartez: **"Kulturartekotasunaren gure eredua eratzen: euskal biztanleria plural eta inklusiboago baten alde".** Gune honetan baliabideak eta ekintzak aurki daitezke, askotariko materialak eta esperientziak partekatu eta Euskal Autonomi Erkidegoan Euskadiko kultur-aniztasunaren alde lan egiten duten erakundeen lana ezagutu. Helburua biztanleriari arlo honetan lan egiten dugun erakundeen lanaren berri ematea da, baita ezagutza eta esperientzien elkar trukaketa sustatzea bikoiztasunak ekiditeko eta ikerketa eta sarean lan egitea eta eragileen arteko lankidetza laguntzea partekaturiko hausnarketa ardatz hartuta lan egiteko ere.

Gune birtual hau doako tresna da eta kultur-aniztasunaren alde lan egiten duten euskal hezkuntza eta gizarte-eragileen eta jatorri ezberdineko pertsonen inklusioaren alde lan egiten duen euskal biztanleriaren zerbitzura dago. AMALGAMAk ekintza hauen eragina handitu nahi du, baita arlo honetan guztion artean egiten dugun lanari ikusgaitasun handiago eman ere.

AMALGAMA plataforma birtuala 2014ko abenduaren eta 2015ko irailaren arteko epean (10 hilabete) diseinatu eta programatu izan da. Momentu horretatik aurrera, plataforma funtzionala eta teknikoki operatiboa izan da. Bere helburua lortzearren, plataformak web orrialdearen egitura osatzen duten honako 7 atal hauek ditu:

- Plataforma: AMALGAMA plataforma birtuala sortzean lortu nahi diren helburuen aurkezpen laburra eta plataforman lan egiten duten eta koordinazio, komunikazio eta kudeaketa ardurak dituzten lan taldearen aurkezpena.
- Eragileak: (unibertsitateak, elkarteak, herri-administrazioa, hezkuntza-zentroak, adituak, etab.) plataformaren kide egin diren eta kultura-aniztasunaren arloan politikak sustatu, ekintzak egin eta hausnarketa sorrarazten dituzten eragileak. Atal honetan erakunde hauek kultur-aniztasunaren alde egiten duten lanaren berri ematen da, baita beraiekin harremanetan jartzeko informazioa eskaini ere.
- Proiektuak: AMALGAMAren kide diren eragileek burutu dituzten esperientziak agertzen dira atal honetan. Proiektuak honela sailkatzen dira: gizartearen sentsibilizazioa eta kontzientziazioa, hezkuntza eta prestakuntza, kultura-trukea, etab.
- Agenda: atal honetan AMALGAMAren kide diren eragileek/erakundeek antolatutako jarduerak agertzen dira (kurtsoak, mintegiak, jardunaldiak, etab).
- Laguntzak: eskuragai dauden bekak, diru-laguntzak edo sariak.
- Enplegua: plataforma osatzen duten eragileek eta erakundeek eskaintzen dituzten lan-postuak eta boluntariotza aukerak agertzen dira.
- Mediateka: atal honen bitartez formatu digitalean dauden baliabide ezberdinak, bai bibliografikoak bai multimedia-motakoak, daude eskuragai kultura-aniztasunaren arloan ikasketa prozesuak hasteko, hausnartzeko eta lan egiteko. Baliabideak honela daude sailkatuta: argitalpenak, ikus-entzunezko materiala eta material didaktikoa. Gaiaren arabera ere daude ikusgai: kultura-aniztasunaren kudeaketa, enplegua, hezkuntza, generoa, etab.

- Albisteak: hasierako orrialdean kultura-aniztasunaren arloan Euskadiko komunikabide nagusiek argitaratu dituzten albisteen atalera sar gaitezke.
- Foroa: plataformaren kide diren biztanleria eta hezkuntza eta gizarte-eragileak foro honetara sar daitezke zalantzak, esperientziak eta ardurak elkar trukatzeko.

Horrez gain, on-line plataformak atal publiko bat eta beste bat pribatua ditu. Atal pribatura plataforman erregistratu diren erakunde guztiak sar daitezke: atal honetan erakunde bakoitzak beharrezkotzat jotzen duen eduki guztiak argitaratu ditzake, aurretiaz ezarritako irizpideak betetzen dituztelarik beti ere. Atal publikoan kultura-aniztasunari eta arlo honetan lan egiten duten erakundeei buruzko ezagutzak handitu nahi dituzten edozein pertsona sar daiteke. Argitalpen guztiak deskarga daitezke eta doan kontsultatu.

AMALGAMA plataformara lotura honen bidez sar gaitezke: www.amalgama.eus. Plataforma formatu elebidunean dago (euskera eta gaztelera).

Halaber, 2017an zehar, bi atal berri sortu dira non zurrumurruen kontrako estrategiarekin zerikusia duten ekintzak nabarmentzen diren alde batetik, eta, bestetik, populazio errefuxiatuaren aldekoak. Bi atal horietan eragileak, jarduerak, materialak eta gai horiei buruzko albisteak aurkitu daitezke. 2017ko ekainetik aurrera, AMALAGAMAk hilabeteko buletina aurkezten du non albisterik nabarmenenak partekatzen diren plataformaren bidez hilabetero.

Azkenik, azken urtean zehar, plataformaren edukien kudeaketa nork bere gain hartu du hein handiago batean AMALGAMAren parte diren hezkuntza eta gizarte erakundeen aldetik, aurreko urtearekin alderatuta. Horrela, beraiek eguneratu dute bere proiektuei, ekintzei, boluntariotza edota enplegu eskaintzei eta argitaratutako materialei buruzko informazioa.

Jarraian 2017an zehar AMALGAMA plataformaren parte diren atal bakoitzaren emaitza nagusienak aurkeztuko dira:

ALBISTEAK

Aurretiaz esan den bezala, AMALGAMAk aldian-aldian eguneratu diren albisteen atala du. Guztira, 182 albiste partekatu dira orainarte eta azken hilabetetan partekatu diren albisteen gehiengoa Siriako gaztakari buruzkoak eta hori dela eta bere jaioterria utzi behar izan duten eta Bigarren Mundu Gudatik eman den krisirik handienari irtenbide humanitarioa ematen ez dion Europa krudel eta ez solidarioari babesa eskatu behar duten milioika pertsonei buruzko informazioa izan dira.

Albiste hauen izenburuak, irudiekin batera, plataforma birtualaren portadan agertzen dira eta albiste osoaren estekan sar gaitezke hauek aukeratzean. Albiste hauek AMALGAMAren sare sozialetan partekatzen dira ere bai.


ERAGILEAK

Azken urte honetan, plataforma kulturarteko bizikidetzaren alde lan egiten duten euskal eragile batzuei aurkeztu diegu. Aurkezpen hauen eta sare sozialetan egindako hedapenaren bitartez AMALGAMAn 67 hezkuntza eta gizarte-eragile erregistratu dira, horietako %65,6 Bizkaikoak, %23,8 Gipuzkoakoak eta %10,4 Arabakoak.

Hedatze prozesuari laguntzeko, AMALGAMA plataformari buruzko informazio zehatza duten askotariko materialak sortu dira. Material horiek sare sozialen, posta elektronikoaren eta postaren bidez barreiatu dira, baita leku estrategiko batzuetan formatu fisikoan aurkeztuta ere. 2017an zehar, AMALGAMAra guztira 20 hezkuntza eta gizarte-eragile batu dira, horietako %60 Bizkaikoak, %20 Gipuzkoakoak, %5 Arabakoak eta %15 Nafarroakoak.

Erakunde horien kategoriei dagokionez, gehiengoa elkarteak dira, etorkinen alde eta kultura-aniztasunaren arloan sentsibilizazio eta formakuntza lana egiten duten 7 elkarte. Erregistratu diren elkarteen artean Bilbo, Lekeitio eta Urretxu udalen bizikidetza, aniztasuna eta immigrazioaren arloetakoak diren 3 administrazio publiko daude ere. 2 fundazio, 2 plataforma, federazio bat, koordinakunde bat, ikastetxe bat, erakunde pribatu bat, profesional bat eta emakumeen elkarte feminista bat daude ere bai.

1. Grafikoa: AMALGAMAN erregistratuta dauden eragileak.



Azkenik, eragileen artean AMALGAMAN egun boluntario lez lan egiten duten pertsonak ere daude. 9 boluntarioak, 1 gizon eta 8 emakume, 2017. urtean zehar AMALGAMAko boluntarioen taldera batu dira eta kudeaketa eta dinamizazio jardueren, gizarte-eragileen artean plataformaren hedapenaren, plataforman EAEko kultura-aniztasunari buruzko edukiak sortzearen eta mediateka atalaren edukien kudeaketaren arduradun dira. Edota agendan argitaratzen diren hainbat jardueretara bertaratuz AMALGAMAKO erreportari lez, baita jarduerari buruzko albiste laburrak idatziz ere, ostean AMALGAMAko albisteen atalean eta sare sozialetan partekatzen ditugularik.

PROIEKTUAK

AMALGAMAn parte hartzen duten gizarte eta hezkuntza-eragileek burututako proiektuak bere kategoriaren eta garatu diren probintziaren arabera sailka daitezke: gizartearen sentsibilizazioa eta kontzientziazioa, hezkuntza eta prestakuntza, kultura-trukea, gizarte-laguntza eta arreta, orientabide juridikoa eta soziala, ikerketa eta genero-arloko berdintasuna.

Jarraian ikusi ahal den bezala, urte honetan zehar proiektuak aurkezteko sortutako atalak ez du hainbesteko garrantzia izan beste atalekin alderatuta (adibidez, agenda), eragileek ekintzekin zerikusia duen informazioa gailentzen dutelako, proiektuekin zerikusia dutena alde batera utzita.


Azkeneko urte honetan zehar, 3 proiektuei buruzko informazioa partekatu da, horietako 2 Bizkaian eta 1 Gipuzkoan garatzen direlarik. Proiektu gehienek hezkuntza eta prestakuntza eta kultura trukea nahi dute.

AGENDA

AMALGAMAren agendan partekatzen diren jarduerek honako elementu hauek dituzte: jardueraren deskribapen laburra, jardueraren kartelaren irudia, hasiera eta bukaera datak, helbidea eta loturak gehitzeko aukera, jarduerari buruzko irudiak edota artxiboak.

Pasaden urtean, AMALGAMAren agendan 105 jarduera argitaratu dira honako maiztasunarekin:

2. Grafikoa: hilabetero agendan partekaturiko jarduerak.



Grafiko honetan ikus daiteke partekaturiko jarduera gehien izan duen hilabetea ekaina izan dela.

Azkeneko urte honetan plataforman argitaratu diren jarduera gehienak Bizkaian (78) gauzatu dira, Gipuzkoak jarraitu dio (19) eta azkenik Araba, online formakuntzak 4 ekintza izan ditu guztira. Sailkapen hau probintzia bakoitzeko erregistraturiko eragileen araberakoa da, oraingoz AMALGAMAn erakunde publiko eta pribatu gehienak bizkaitarrak baitira.

Jardueren kategoriari dagokionez, gehienak **sentsibilizazioa eta informazioa arlokoak (47)** eta **hezkuntza eta prestakuntza (33)** izan dira.

LAGUNTZAK eta ENPLEGUA

Laguntzen atalean diru-laguntzak, sariak, bekak eta lehiaketak daude. Hauek hezkuntza eta gizarte-eragileek eta biztanleriak kultur-aniztasunari, migrazioa eta giza-eskubideei lotuta erabili daitezke. 2017.urtean zehar, 22 laguntza argitaratu dira: 15 diru-laguntza, 5 sari eta 2 beka. Laguntza gehienak estatu eta erkidego mailako deialdiak izan dira.

2017.urtean zehar, enplegu eta boluntariotza atalean 8 eskaintza argitaratu dira, bat boluntariotzakoa eta enpleguko zazpi. Hala ere, eskaintza guztiek informazio gehiagorako edo eskaintza argitaratu duten erakundeekin lan egiteko eskakizun bat edo gehiago jaso dituzte.

MEDIATEKA

Mediatekan eragileen lana, hausnarketa eta ikasketa prozesuak errazten dituzten baliabide batzuk aurki daitezke. Baliabide hauek kategoria eta gaien arabera daude sailkatuta:

Gaiak:


- Kultura aniztasunaren kudeaketa
- Haurrak, gazteak eta familia
- Giza eskubideak
- Enplegua
- Hezkuntza
- Generoa
- Osasuna
- Zurrumurruen aurka
- Arrazakeria eta xenofobia
- Immigrazioa
- Ingurune-migrazioak
- Errefuxiatuak eta babesa

Kategoriak:

- Argitalpenak: prentsa artikuluak, artikulu akademikoak, azterlanak eta ikerketak, txosten zientifikoak, legeak, liburuak, aldizkariak, gaikako eskuliburuak eta gidak, AMALGAMAKO plataformaren gidak.
- Material didaktikoak: gaikako aurkezpenak, koadernoak/ eduki teorikoak, lan-fitxak, web orriak, bideo-jokoak, haur-ipuinak eta lan-dinamikak eta metodologiak.
- Ikus-entzunezko materialak: filmak, film laburrak, dokumentalak, hitzaldiak, lekukotzak eta jardueren dokumentu grafikoak.
- 2017an zehar “Zientzia-dibulgazioa” izena duen sail berri bat sortu da, non jardunaldi, mintegi, kongresu eta abarretan oinarrituta sortutako materialak sartu ahal diren.

AMALGAMAko boluntariotza taldeak baliabide hauen gehitze prozesuan parte hartu du. Beraiei esker, ikus-entzunezko 9 material (gehienak laburrak), 28 artxibo (ikerketak eta azterlanak gehien bat) eta 7 esteka (web orriak gehien bat) partekatu dira. Bestalde, baliabide gehien dituzten gaiak immigrazioa (%24) eta zurrumurruen aurkakoak (%24) izan dira. Ingurune-migrazioen gaia, web orrian hain berria denez, oraindik ez du materialik. Beste gaiei dagokienez, honako grafiko honetan ikus dezakegu bere sailkapena:

3. grafikoa: mediatekan partekatu diren materialen gaiak.



ERREGISTRATU DEN BIZTANLERIA

AMALGAMA plataforman biztanle bezala erregistratzeko aukera ere badago, "herritartasunaren erregistroa" ren bidez. Atal hau gaiarekiko interesa edo zalantzak dituzten eta plataformaren atal guztiei sartu nahi duten pertsonentzat diseinatuta dago.

2017an, 43 pertsonek batu dira AMALGAMAn erregistraturiko herritartasunen taldera.

BULETINAREN HARPIDETZAK

Halaber, AMALGAMA plataformak hileko buletin elektronikoaren harpidetza egiteko aukera ere luzatzen du. , 2017ko ekainetik aurrera aireratu izan da. Buletin horrek honako atal hauek ditu:

1. Pozten nau zu ezagutzeak: Erregistraturiko eragileen banakako aurkezpena.
2. Zer gertatzen ari da?: Hilabeteko albiste gailenak.
3. Planik gabe, ala?: Antolaturiko jardueren agenda.
4. Zure eskura: Mediatekan partekaturiko azken baliabideak.
5. Zer eskaintzen da?: Bidaltzean indarrean dauden enplegu eta boluntariotza eskaintzak eta indarrean dauden beka, diru-laguntza, sari eta lehiaketen deialdiak.

2016tik 2017ra, AMALGAMAko buletinaren harpideek bikoiztu egin dute bere kopurua. Egun, buletinak 207 harpidetza ditu, 150 emakume, 41 gizon eta 16 erakunde.

AMALGAMAK ANTOLATUTAKO EKINTZAK

➢ "BIZIKIDETZA SUSTATZEKO KULTURA- ARTEKO SARE ETA PLATAFORMAK" MINTEGI TEKNIKOA

"Bizikidetza sustatzeko kultura- arteko sare eta plataformak" mintegia 2017ko urriaren 26an ta 27an ospatu zen eta Getxolan- Sustapen ekonomikorako eta emplegurako Zerbitzuan (Getxo) izan zena. Mintegiak hasierako emanaldian Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Getxoko Udalaren ordezkaritza instituzionala izan zuen.

Halaber, mintegian 12 txostengile hartu zuten parte, baita moderatzaile lanak egiteko hiru pertsona gonbidatu ziren ere:

- José Ramón Sobrón, Kaleidos sarearen koordinatzailea.

- Gloria Rendón, inmigrante, emigranteak eta errefuxiatuen arreta zerbitzukoa.

- Manuel Vicente Sánchez, de Redes Interculturales Andaluzia Sarekoa.

- Sonia Ortega, Escuelas Interculturales Sarekoa.

- Marifé Calderón, Bartzelona Udaleko kultura- arteko BCN programakoa.

- Naiara Vink e Ignacio Fariña, Harresiak Apurtuz.

- Daniel de Torres, Ciudades Europeas Interculturales Sarekoa.

- Marina Delgado, Bienvenidos Refugiados España Plataformakoa.

- Ane Lezama, Amekadikoa eta ZAS! Zurrumurruen kontrako Sarearen izenean.

- Javier Pérez, Eraberean Sarekoa.

- Andoni Louzao, Ongi Etorri Errefuxiatuak- Bizkaia eta Getxo plataformakoa.

Era berean, mintegiak lau lan-mahai izan zituen, non honako gai hauek landu ziren:

- "RE (ntabilifa) DES: Herritarren parte- hartzea, Bizikidetza eta Toki- administrazioa.
- Partekatu beharreko esperientziak: kudeaketa-sistemak eta sektore publiko, sektore pribatua eta sektore sozialaren arteko aliantzak ezartzea gizarte-inklusioaren eta gizarte-kohesioaren eremuan.
- Partekatu behar den 20 urteko esperientzia. Harresiak Apurtuz: Etorkinei laguntza emateko Euskadiko GKE Koordinakundea.
- Parte hartu duten sareen eta plataformen esperientzia: "Kudeaketa - komunikazioa - berrikuntza eta herritarrek parte hartzeko guneak sortzea".

Mintegiko programa



Enmarcado en el proyecto AMALGAMA de la asociación MATIZ (www.amalgama.eus), punto de encuentro de distintas entidades públicas y privadas de distinta índole que trabajan en materia de interculturalidad en Euskadi, este seminario se configura como un espacio en el que compartir experiencias y aprendizajes para favorecer el trabajo coordinado y en red entre los distintos agentes sociales y educativos vascos que orientamos nuestra labor a favorecer la convivencia intercultural.

26 DE OCTUBRE

9:30 – 10:00 h: Acreditaciones y entrega de materiales.

10:00 – 10:30 h: Apertura a cargo de entidades colaboradoras:
Asociación Matiz- Educación en Valores. *Sara Maza*
Diputación Foral de Bizkaia, *María Guijarro*
Ayuntamiento de Getxo, *Elena Coria*

10:30 – 11:00 h:"RE(ntabilida)DES: Participación ciudadana, Convivencia y Administración Local". Experto en participación ciudadana y Coordinador de Kaleidos.red. *José Ramón Sobrón*

11:00 – 13:30 h: Experiencias para compartir: sistemas de gestión y establecimiento de alianzas público-privada/social en el ámbito de la inclusión y cohesión social.

- Servicio de Atención a Inmigrantes, Emigrantes y Refugiados (SAIER) – Ayuntamiento de Barcelona. *Gloria Rendón*
- Redes Interculturales de Andalucía. *Manuel Vicente Sánchez*

Descanso (café)

- Red de Escuelas Interculturales. *Sonia Ortega*
- Programa BCN Interculturalidad del Ayuntamiento de Barcelona. *Marifé Calderón*

Modera: *Ekain Larrinaga*. Ayuntamiento de Getxo.

13:30 – 14:00 h: Una experiencia con 20 años de historia para compartir. Harresiak Apurtuz: Coordinadora de ONG de Euskadi de Apoyo a Inmigrantes. *Ignacio Fariña*

14:00 – 14:30 h: Debate

14:30 – 16:00 h: Comida

16:00 h – 18:30 h: Trabajo por grupos. Temáticas sugeridas:
• Herramientas de acogida e inclusión social a nivel local.
• Elementos innovadores para generar procesos de sensibilización social.
• Espacios de inclusión y metodologías innovadoras para fomentar la participación de la ciudadanía.
• Procesos de empoderamiento en las asociaciones conformadas por personas inmigrantes y por mujeres para impulsar una convivencia intercultural e igualitaria.

18:30 – 19:00 h Plenaria: Conclusiones principales del trabajo por grupos.

27 DE OCTUBRE

9:00 – 11:45 h: La experiencia de Redes y Plataformas participantes: "Gestión – comunicación - innovación y generación de espacios para la participación ciudadana".

- Red de Ciudades Interculturales (RECI). *Daniel de Torres*
- Red de Escuelas Interculturales. *Sonia Ortega*
- Bienvenidos Refugiados España. *Marina Delgado*
- Redes Interculturales de Andalucía. *Manuel Vicente Sánchez*
- ZAS! Zumurruen Aurkako Sarea - Red Vasca Antirumores. *Amekadi*
- Red Eraberean. *Javier Pérez*
- Ongi Etorri Errefuxiatuak – Bizkaia y Getxo. *Andoni Louzao*
- Programa BCN Interculturalidad del Ayuntamiento de Barcelona. *Marifé Calderón*
- Federación Plataforma de Inmigrantes de Getxo.

Modera: *Julia Shershneva*. Ikuspegi- Observatorio Vasco de Inmigración.

11:45 – 12:00 h: Debate

12:00 – 13:30 h: World Café: "¿Qué nos llevamos de este encuentro? Ideas y propuestas para la acción y la mejora".
13:30 – 14:00 h: Clausura del seminario.

Colaboran:

MINTEGI- TEKNIKOA:

BIZIKIDETZA SUSTATZEKO KULTURA- ARTEKO SARE ETA PLATAFORMAK

LEKUA: GETXOLAN
Ogoño kalea, 1 GETXO

LEKU MUGATUAK!
Informazioa eta izena ematea:
info@amalgama.eus
94- 4360715

Antolatzailea:
Asociación MATIZ educación en valores

Mintegi hau Matiz elkarteak sustatutako AMALGAMA (www.amalgama.eus) proiektuaren parte da. Ekimen honetan Euskadiko hainbat eremutan kultura-artekotasunaren alde lan egiten duten erakunde publiko zein pribatu batzuk bilduko dira. Era berean, mintegia esperientziak eta ezagutzak partekatzeko gune bat da, kultura arteko bizikidetzaren alde lan egiten dugun euskal eragile sozial eta hezitzaileen arteko sareko lan koordinatua bultzatzeko.

URRIAK 26

9:30 – 10:00: Akreditazioak eta materialen banaketa.

10:00 – 10:30: Hasiera, erakunde laguntzaileen eskutik:
Matiz Elkartea- Balioen Hezkuntza. *Sara Maza*
Bizkaiko Foru Aldundia, *María Guijarro*
Getxoko Udala, *Elena Coria*

10:30 – 11:00:"RE(ntabilida)DES: Herritarren parte- hartzea, Bizikidetza eta Toki- administrazioa." Herritarren parte- hartzean aditua eta Kaleidos sarearen koordinatzailea. *José Ramón Sobrón*

11:00 – 13:30: Partekatu beharreko esperientziak: kudeaketa-sistemak eta sektore publiko, sektore pribatua eta sektore sozialaren arteko aliantzak ezartzea gizarte-inklusioaren eta gizarte-kohesioaren eremuan.

- SAIER (Immigrante, emigranteak eta errefuxiatuen arreta-zerbitzua) – Bartzelonako Udala. *Gloria Rendón*
- Redes Interculturales Sarea (Andaluzia). *Manuel Vicente Sánchez*

Atsedenaldia (kafea)

- Escuelas Interculturales Sarea . *Sonia Ortega*
- Bartzelona Udaleko kultura- arteko BCN Programa. *Marifé Calderón*

Moderatzailea: *Ekain Larrinaga*. Getxoko Udala.

13:30 – 14:00: Partekatu behar den 20 urteko esperientzia. Harresiak Apurtuz: Etorkinei laguntza ematen Euskadiko GKE Koordinakundea. *Ignacio Fariña*

14:00 – 14:30: Mahai-ingurua

14:30 – 16:00: Bazkaria

16:00 h – 18:30: Taldeko lana. Proposatutako gaiak:
• Harrera eta gizarte-inklusioa sustatzeko tresnak maila lokalean.
• Elementu berritzaileak gizartea sentsibilizatzeko prozesuak sortzeko.
• Inklusio-guneak eta metodologia berritzaileak herritarren parte-hartzea sustatzeko.
• Ahalduntze-prozesuak immigranteek eta emakumeek osatutako elkarteen barruan, berdintasunean oinarritutako kultura arteko bizikidetza sustatzeko.

18:30 – 19:00 Osoko saioa: Taldeko lanak sortutako ondorio nagusiak.

URRIAK 27

9:00 – 11:45: Parte hartu duten sareen eta plataformen esperientzia: "Kudeaketa - komunikazioa - berrikuntza eta herritarrek parte hartzeko guneak sortzea".

- Ciudades Interculturales Sarea (RECI). *Daniel de Torres*
- Escuelas Interculturales Sarea. *Sonia Ortega*
- Bienvenidos Refugiados España. *Marina Delgado*
- Redes Interculturales Sarea (Andaluzia) *Manuel Vicente Sánchez*
- ZAS! Zumurruen Aurkako Sarea - Red Vasca Antirumores. *Amekadi*
- Eraberean Sarea. *Javier Pérez*
- Ongi Etorri Errefuxiatuak – Bizkaia eta Getxo. *Andoni Louzao*
- Bartzelona Udaleko kultura- arteko BCN Programa. *Marifé Calderón*
- Getxoko Etorkinak Plataforma Federazioa. Pendiente

Moderatzailea: *Julia Shershneva*. Ikuspegi- Immigrazioaren Euskal Behatokia.

11:45 – 12:00: Mahai-ingurua

12:00 – 13:30: World Café: "Zer ekarri digu topaketa honek? Ekintzarako eta hobetzeko ideiak eta proposamenak".
13:30 – 14:00: Mintegiaren amaiera-ekitaldia.

Laguntzaileak:

SEMINARIO TÉCNICO:

REDES Y PLATAFORMAS INTERCULTURALES PARA EL FOMENTO DE LA CONVIVENCIA

LUGAR: GETXOLAN
Calle Ogoño, 1 GETXO

¡PLAZAS LIMITADAS!
Información e inscripciones:
info@amalgama.eus
94- 4360715

Organiza:
Asociación MATIZ educación en valores

Guztira, 27 pertsona mintegiko egun bietan bertaratu ziren eta 57 pertsona egun batetan soilik, bere erakundeen izenean. Honako hauek hartu zuten parte, besteak beste: Munduko Medikuak, Kolore Guztiak, Bitartean jolasean, Integraziorako eta kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal zerbitzua "Biltzen", Elkarbanatuz, etab.

Orobat, txostenekin batera, mintegian jarduera praktikoago bat antolatu zen, non txostengileek eta partehartzaileek gure jardueraren esparru anitzak kontuan izanda ideiak kontrajartzeko eta kezkak partekatzeko aukera izan zuten, berritzaileago edo ez diren tresna, metodologia eta beste elementuen abiarazteari dagokionez, esperientzia berrien garapena sustatzeko.

Open space dinamika antzeko bat abiarazi zen, denbora mugatzeak direla eta desiragarri izan ohi den baino zuzendutagoa. Lau lantalde eratu ziren eta bertaratutako pertsona guztiek talde guztietan parte hartu zuten bere ekarpenak eginez. Lau lantalde horien gaiak honako hauek izan ziren:

- Harrera eta gizarte- inklusioa sustatzeko tresnak maila lokalean.
- Elementu berritzaileak gizartea sentsibilizatzeko prozesuak sortzeko.
- Inklusio- guneak eta metodologia berritzaileak herritarren parte- hartzea sustatzeko.
- Ahalduntze- prozesuak immigranteek eta emakumeek osatutako elkarteen barruan, berdintasunean oinarritutako kultura arteko bizikidetza sustatzeko.

Mintegi teknikoaren barnean gauzatutako lan emanaldien emaitza bezala, sistematizazio txosten bat sortu zen (bai euskaraz bai gaztelaniaz), non mintegiko ideia eta gogoeta nagusiak aurkezten diren. AMALGAMAko Mediateka atalean dago eskuragai:

http://www.amalgama.eus/es/frontend/openarchivo/5a731d7fe5186.pdf

“Open Space” dinamikan zehar nabarmendutako ideia nagusiak aurkezteaz gain, txosten horrek txostengileen aurkezpenak, parte hartu zuten sare eta plataformen datuen laburpenak, mintegian zehar egindako argazkiak, txostengileek bere aurkezpenak eta gero galderak erantzuten zituzten bitartean grabatutako audio laburrak eta, azkenik, mintegian zehar egindako hainbat bideo eta argazki batzen dituen bideoa ditu. Grabatutako erantzunak honako galdera hauei dagokie: sarean egindako lana garrantzitsua al da? eta zergatik egin behar da kulturarteko hirien alde?

➢ ONLINE IKASTAROA: KULTURARTEKO ESPERIENTZIAK EUROPA MAILAN

Urte honetan zehar, moodle formakuntza plataforma garatu da AMALAGAMAn eta plataforma honen barnean garatzeko lehen online kurtsoa diseinatu da: “Kulturarteko esperientziak europa maila”.

Formakuntzak dibertsitatearen kudeaketari ekiteko eta kulturarteko bizikidetzaren eta harremanen elementuei buruzko hausnarketa sustatzeko beharrezko gertatzen diren ezagutza eta gaitasun praktikoak jabetzea erraztu nahi du. Horretarako, kultura-aniztasunaren kudeaketarako funts teoriko eta gogoeta praktiko ezberdinak aurkezten ditu, bai udal-mailan bai hezkuntza-mailan.

Kurtsoak nazio eta nazioarteko mailan entzute handiko aditu ezberdinen irakurketa eta ikus-entzunezko baliabideen konpilazioa eskaintzen du. Halaber, aurkeztutako eskuliburu eta gida praktikoek kultura-aniztasunaren kudeaketaren prozesu berritzaile eta arrakastatsuei buruzko informazio zehatza ematen duten esperientzia eredugarri anitzak aurkezten dute.

Kurtso honen helburu pedagogikoa hezkuntza eta udal-mailan sustatutako kultura-

aniztasunaren kudeaketari buruzko prozesuen hobekuntza eta horiei buruzko hausnarketa sustatzea da hurrerapen teoriko aplikatuaren bidez, baita toki, estatu eta europar-mailan izandako esperientzia eredugarriei buruzko ezagutzaren bidez ere.

Kurtsoak 3 modulu ditu:

1. modulua: Kultura-aniztasunaren kudeaketa, XXI. mendeko erronka

2. modulua: Esperientzia arrakastatsuak kulturarteko komunitate-ekintzan

3. modulua: Jardunbide egokiak kulturarteko hezkuntzan Europan

Kurtsoko kartela



AMALGAMAREN JARDUERAREN LABURPENA URTEKA

URTEAK	Eragileak	Albisteak	Proiektuak	Jarduerak	Laguntzak	Enplegua	Mediatekako Materialak	Erregistratutako biztanleria	Buletinaren harpidetzak
2015-2016	78	117	17	129	37	9	86	43	118
2017	29	182	3	105	22	8	44	43	89
GUZTIRA	**107**	**299**	**20**	**234**	**59**	**17**	**130**	**86**	**207**

SARE SOZIALAK


Bost dira AMALGAMA plataformarekin lotuta daude sare sozialak: Facebook, Twitter, Youtube, Linkedin eta Google+. Azkenengo hirurek oraindik jarduera gutxi dute eta, beraz, Facebook eta Twitterren lortu ditugun emaitzak aztertuko ditugu 2017ko urtean zehar.


FACEBOOK: AMALGAMA (@Amalgama.eus)

Orrialde hau 2015eko uztailaren 15ean sortu zen eta egun 579 jarraitzaile ditu, 87 pertsonak orrialdearen jarraitzaile bihurtu ziren 2017an. Urriaren azkenengo astean, AMALGAMAko jarraitzaileen kopuru nabarmenki egin zuen gora, AMALGAMAk urriak 26 eta 27 an antolatutako "Bizikidetza sustatzeko kultura-arteko sare eta plataformak" mintegiarekin bat eginez.

Orrialdea gustuko duten pertsonei dagokionez, %74a emakumeak dira eta %24a gizonak eta gehienek 25 eta 34 urte bitartean dituzte. Halaber, gehienak Bilbokoak dira (156 jarraitzaile), gero Gasteizkoak (43), Madril (25) eta Algortakoak (19). Hizkuntzari dagokionez, %88k AMALGAMAren profila gazteleraz bisitatu dute eta %8,8ak euskaraz.

4. eta 5. Grafikoak: AMALGAMAren Facebooken jarraitzaileen adina eta sexua.





Orrialde honen argitalpenak egunero egin ohi dira eta gaurkotasuneko albisteak, AMALGAMA orrialdean erregistraturiko eragileek partekaturiko jarduerak eta interesgarri deritzogun bideoak edota memeak izaten dira, Euskadiko eta Nafarroako migrazioari eta kultur-aniztasunari lotuta beti ere.

TWITTER (@Amalgama_eus)

AMALGAMAren orrialdea Twitterren Facebook orrialdea sortu eta oso gutxira sortu zen, 2015eko irailean. Ordutik hona, orrialdeak 109 jarraitzaile ditu. Horietatik, 31k 2017an batu egin ziren. Facebook-en gertatu zen bezala, urrian egon ziren bisita eta atxikimendu gehien tweet-ei dagokienez, “Bizikidetza sustatzeko kultura-arteko sare eta plataformak” mintegia dela eta.

Guztira, AMALGAMAren Twitterreko profila 642 aldiz bisitatu dute eta 76 tweet argitaratu dira, 11.052 aldiz baino gehiago irakurri, bilatu eta partekatu direlarik. Jarraitzaileen gehiagotze prozesuaren aldi berean, 2017eko urrian profilean bisita gehien egon ziren (117)baita tweet gehiago partekatu ziren (27) hilabetea izan zen, 2.186 aldiz baino gehiago bisita jaso zituztenak.